NISAE

EUSKADIKO ADMINISTRAZIOEN SEGURTASUNERAKO ETA ELKARRERAGINGARRITASUNERAKO NODOA

# *Erabiltzailearen gida NISAEri eskaerak bidaltzea*

*1.0 bertsioa*

# Eskaerak bidaltzea

Modulu honetan baimen-eskaerak egin daitezke, bai zerbitzu baterako, bai erabiltzaileei alta emateko Eskuzko bitartekotza aplikazioan.

Modulu honetarako sarbidea irekia da **NISAE**n eskatzaile, erakundearen administratzaile nahiz NISAEren administratzaile gisa alta emandako erabiltzaileentzat.

Erabiltzaile logeatuari dagokion erakundearen izenean egingo dira eskaerak.

Bi mota hauetako eskaerak jasotzen dira:

- **Baimen-eskaerak**: Zerbitzu baterako edo gehiagorako eta prozedura jakin baterako erakunde lagapen-hartzaileari baimena eskatzeko.
- **Eskuzko bitartekotzarako erabiltzaileei alta emateko eskaera**: Zerbitzu baterako edo gehiagorako eta prozedura jakin baterako **Eskuzko bitartekotza** aplikazioa balia dezan erabiltzaile bati edo gehiagori alta ematea eskatzeko. Erakundeak aurretiaz baimenduta dituen prozeduretarako/zerbitzuetarako eskaerak soilik egin ahal izango dira.



# 1 Baimen-eskaera berria




Behin eskaera-formularioan sartuta, eremu hauek bete beharko dira:



1. **Eskaera egiten duen erakundea**: Datuak automatikoki aurrekargatuko dira aplikazioan sartzeko erabilitako ziurtagiri elektronikoari buruzko informaziotik abiatuta.
2. **Organoa:** Eremuaren eskuinaldean agertzen den lupa hautatuta, organoak bilatzeko orri batera sartzen da. Orri horretan, lehenik saila bilatu beharko da eta, sailetik abiatuta, organoa bilatu ahal izango da.
3. **Organoaren titularra:** Behin organoa hautatuz gero, haren titularraren datuak adierazi beharko dira. Datu horiek aurrekargatu egingo dira azken eskaeraren datuetatik abiatuta; baina, beti aldatu ahal izango dira.
4. **Prozedura:** Baimena zein prozeduratarako eskatzen den. Eremuaren eskuinaldean agertzen den lupa hautatuta, aurreko urratsean hautatutako organoari lotutako prozeduren zerrenda erakusten da.

   Prozedura aurkituko ez balitz, “**Berria**” aukera hautatuta, beste prozedura bati alta emateko beharrezko datuak agertuko dira. Erakundearen administratzaileak informazioa baliozkotu ondoren, prozedura berria eskaeran adierazitako organoari lotuta dagoen **prozeduren katalogoan** barne hartuko da.
5. **Zerbitzuak**: Baimena zein zerbitzutarako eskatzen den. Lupa sakatuta, zerbitzuak bilatzeko orri bat agertzen da. Zenbait zerbitzu hautatu ahal izango dira eskaera berean haiek baimendu daitezen eskatzeko.

   Eskaeran adierazitako prozedurarako baimen aktiborik ez duten zerbitzuak besterik ez dira erakutsiko. Zerbitzuak hautatzean, horiek zerrendara gehitzen joango dira. “Baieztatu” aukera hautatuta, eskaeraren orrira itzultzen da. Bertan, hautatutako zerbitzuak agertuko dira.

   Zerbitzu bakoitzerako, beharrezkoa izango da zehaztea haren erabilera arau bidez baimenduko den edo, aldiz, aukerarik badagoen eraginpeko herritarrek berariaz aurka egiteko zerbitzuak erabiliko direneko formularioetan.

   Gainera, arauaren deskribapena, artikulua eta bertara jotzeko URLa sartu beharko dira.

6. **Prozeduraren amaiera-data.** Iraungitze-data duten prozeduren kasuan, horien amaiera-data sartu beharko da. Data horretatik aurrera, ez da baimenik izango prozedura horretarako eskatutako zerbitzuei dei egiteko.

7. **Erantsitako dokumentuak.** Atal honetan, eskaerari dokumentuak erantsi ahal izango zaizkio. Dokumentuaren deskribapen labur bat adierazi beharko da eta, behin hautatu ondoren, “Erantsi” aukera sakatuta, dokumentua gehitu egingo zaio eskaerari lotutako dokumentuaren zerrendari.

8. **Erabiltzaileak.** Eskaerak erabiltzaileen atal bat du. Berori erabiltzen da Eskuzko bitartekotza aplikazioaren bidez eskatutako zerbitzuak erabil ditzaten nahi den erabiltzaileak adierazteko.

   Aukera emango da jadanik NISAEn alta emanda dauden erabiltzaileak hautatzeko (eskaera egiten duen erakundeari lotutakoak), eta erabiltzaile gehiagori alta ematea eskatu ahal izango da.

   Lupa sakatuta, aplikazioan erakundeari lotuta dauden erabiltzaileen zerrenda agertuko da. Haiek hautatu ahala, eskaeraren erabiltzaileen zerrendari gehituko zaizkio.




“**Sortu erabiltzaileak**” aukeran, erabiltzaile bati **NISAE**n alta emateko beharrezko eremuak agertuko dira. Eskaera egiten duen erakundeari lotuta emango zaio alta erabiltzaileari, **Eskuzko bitartekotza ROL**arekin.



Eskaera egiteko beharrezko datu guztiak bete ondoren, “**Bidali**” botoia sakatuta, hura bidali egingo da.

Eskaera erabiltzaile anonimo batek edo **Eskuzko bitartekotza ROL**a duen erabiltzaile batek eginez gero, eskaera egiten duen erakundeari dagokion **Erakundearen administratzailea ROL**a duen/duten erabiltzaileari/erabiltzaileei bidaliko zaio/zaie hura.

Eskaera igorriko balu **Erakundearen administratzailea ROL**a duen erabiltzaile batek, hura zuzenean bidali zaio/zaie **NISAEren administratzaile nagusiak** erabiltzaileari/erabiltzaileei.

## 2 Erabiltzaileei alta emateko eskaera




**Eskuzko bitartekotza** aplikazioaren bidez zerbitzu bat erabiltzeko (horren gaineko baimena izanik) erabiltzaileei alta emateko eskaera da.




Eremu hauek bete behar dira:

9. **Prozedura**: Zerbitzua zein prozeduraren bidez erabiliko den. Lupa gainean sakatuta, erakundeari lotutako prozeduren zerrenda bat agertuko da, horietarako indarreko baimena baldin badago. Prozedura bakarra hautatu ahal izango da.




10. **Zerbitzuak.** Eskuzko bitartekotza aplikazioaren bidez sarbidea eskatzen deneko zerbitzuak. Zenbait zerbitzutarako sarbidea eskatu ahal izango da eskaera berean.




11. **Erabiltzaileak.** Atal honetan, eskaera zein erabiltzailerentzat egiten den adierazten da.

Aukera emango da jadanik **NISAE**n alta emanda dauden erabiltzaileak hautatzeko (eskaera egiten duen erakundeari lotutakoak), eta erabiltzaile gehiagori alta ematea eskatu ahal izango da.

Lupa sakatuta, aplikazioan erakundeari lotuta dauden erabiltzaileen zerrenda agertuko da. Haiek hautatu ahala, eskaeraren erabiltzaileen zerrendari gehituko zaizkio.




“**Sortu erabiltzaileak**” aukeran, erabiltzaile bati **NISAE**n alta emateko beharrezko eremuak agertuko dira. Eskaera egiten duen erakundeari lotuta emango zaio alta erabiltzaileari, **Eskuzko bitartekotza ROL**arekin.




Eskaera egiteko beharrezko datu guztiak bete ondoren, “**Bidali**” botoia sakatuta, hura bidali egingo da.